

birmoldatu

birmodatu es un proyecto bajo una licencia
Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual (by-nc-sa) 3.0 España
Creative Commons.
Para ver una copia de esta licencia visite:
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc/3.0/>

birmodatu Creative Commons-en Aitortu-EzKomertziala-Partekatu
baimen beraren arabera (by-nc-sa) 3.0 Espainia baimenaren mende
dago. Baimenaren kopia bat ikusi nahi izanez gero, jo:
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc/3.0/>

birmodatu es un proyecto de Irune Jiménez González con el apoyo de
Fábricas de Creación de Gobierno Vasco.

birmodatu Irune Jiménez Gonzálezen proiektua da, Eusko
Jaurlaritzako Sormen Fabriken laguntzarekin burutua.

“Bide luzea egin dugu zinismo eta erresistentziako egunetatik, baina oraindik ez dugu amaitu! Borrokan jarraituko dugu aprobetxatzen ez diren espazioak inguruan bizi diren komunitateentzako erabilera emankorra duten espazio bihurtzeko eta jendeari espazio hutsa eraldatzeko aukera emateko, hiri-hondatzetik aukerara igaroz. Merkataritza-jabetzaren industria aldatu nahi dugu eta komunitateentzako (hiritarrak, tokiko agintariak, jabetzak, enpresak eta ingurumena barne) espazio hutsen aldi baterako erabilera berritzaileak dituen onurak partekatzeko guztiontzako lekua izatea”.

Meanwhile Project.

“Hemos hecho un largo camino desde los días de cinismo y resistencia, ¡pero ¡todavía no hemos acabado! Continuaremos luchando para convertir espacios desaprovechados en usos productivos para las comunidades que viven a su alrededor y para dar a la gente la posibilidad de convertir un espacio vacío y pasar del deterioro urbano a la oportunidad. Queremos llegar al punto en el que la industria de la propiedad comercial se dé la vuelta y sea un lugar común en el que compartir los beneficios de un innovador uso provisional de los espacios vacíos para las comunidades”.

Meanwhile Project.

introducción

Birmoldatu significa reconvertir en euskara. Reconvertir significa “reestructurar o modernizar un determinado sector, adaptándolo a las nuevas necesidades”. Se trata de un concepto que principalmente se utiliza al hablar de la industria (“*proceder a la reconversión industrial*”), pero que sin embargo, en este caso se toma porque encaja a la perfección con la necesidad de reflexionar sobre la posible necesidad de reconversión de la gran cantidad de espacios vacíos de nuestras calles y barrios.

Más allá de la inquietud personal que como habitante de la ciudad puede hacer preocupar tal situación, que puede tener como consecuencia mayores niveles de delincuencia, falta de actividad social, tejido de barrio y de contextos de socialización, la realidad también comienza a inquietar a ayuntamientos e instituciones, muchos de los cuales se encuentran sin saber cómo actuar ante la realidad que les está tocando vivir.

Destinar estos espacios a actividades artísticas parece una de las soluciones que se está repitiendo con éxito en muchos lugares que han vivido y/o están viviendo esta misma realidad. Espacios en los que se organizan gran variedad de actividades artísticas: sesiones de cine, clases de arte y música, exposiciones, conciertos, desfiles, huertos comunitarios, bancos de tiempo, mercados de trueque, sesiones *repair café*, celebraciones gastronómicas, conferencias y muchas otras, siempre implicando en ellas a las personas locales para su desarrollo.

Estas actividades pueden pues tener efectos positivos en los entornos en los que se desarrollen, como:

- Efectos en la economía cultural a través de la comercialización de productos derivados de las prácticas artísticas que en estos espacios se lleven a cabo o con iniciativas que pongan en valor y hagan visible aspectos del patrimonio cultural local.

- Creación de proyectos educativos que traten temas como el medioambiente, la interculturalidad, etc.

- Temas referentes a las ciencias sociales como: actividades con las que trabajar las relaciones intergeneracionales, abordar el tema de la interculturalidad, ya que a través de proyectos que se enmarcan en torno al arte se hace partícipe a personas de todo origen, cultura y sexo.

- Arquitectura y urbanismo, trabajando la reactivación social de barrios alejados de los centros de la ciudades, los cuales son los más frecuentemente afectados por esta realidad.

Puesto que tener conocimiento y contacto de las buenas prácticas que se están llevando a cabo en cualquier ámbito y lugar geográfico se entiende como inspirador, necesario y positivo, **birmoldatu** nace con el objetivo de aportar información que haga posible activar proyectos similares en nuestro entorno.

birmoldatu es pues:

- “Una investigación que busca, encuentra, explora y difunde aquellas iniciativas internacionales que desarrollan actividades vinculadas al arte en espacios vacíos o en desuso, integrando y haciendo partícipes para ello a la población local”.

- “Información de uso abierto (CC) que resulta de utilidad, de interés y de inspiración a personas, asociaciones, colectivos, instituciones, entidades, ayuntamientos u otros, que quieran dar algún tipo de uso a sus espacios vacíos”.

- “Un documento a compartir con instituciones y ayuntamientos, que tenga como resultado la puesta en marcha de iniciativas similares en este entorno”.

Birmoldatzea “sektore zehatza berregituratu edo modernizatzea da, behar berrietara egokituz”. Batez ere industriari buruz hitz egiten ari garenean erabiltzen den kontzeptua da (“industria-birmoldaketari ekin”), baina oraingo honetan ordea, gure kale eta auzoetako espazio huts ugari birmoldatzeko edon daitekeen beharrek gurekin guztiz bat datorrelako erabili dugu.

Egoera horrek hiriko biztanle gisa pertsonalki arduratzea eragin ezezik, delinkuentzia-maila handiagoa, gizarte-jardueraren, auzoko sareen eta sozializazio-testuinguruen falta ekar dezake ere. Errealitate honek, kezka pertsonalaz gain, udalak eta erakundeak kezkarazten ditu dagoeneko, eta horietariko askok ez dakite nola jardun bizi duten egoeraren aurrean.

Espazio horiek arte-jarduerarako erabiltzea, egoera berbera bizi duten eta/edo bizi izan duten leku askotan arrakastaz errepikatzen ari den konponbideetako bat dela dirudi. Espazioetan hainbat jarduera artistiko antolatzen dira: zinema-saioak, arte eta musika eskolak, erakusketak, kontzertuak, desfileak, komunitate-ortuak, denboraren bankuak, truke-merkatuak, *repair café* saioak, ospakizun gastronomikoak, hitzaldiak eta beste hainbat jarduera, beti tokiko pertsonak tartean sartuz.

Jarduerok eragin positiboa eduki dezakete garatzen diren inguruan, adibidez:

- Eragina ekonomia kulturalen espazio horietan burutuko diren jardun artistikoekin sortutako produktuen merkaturatzearen bidez edo tokiko ondare kulturalaren alderdiak bistaratu eta balioa emango dien ekimenen bidez.

- Ingurumena, kulturartekotasuna eta abarri buruzko hezkuntza-proiektuak sortzea.

- Gizarte-zientziei buruzko gaiak, adibidez: belaunaldien arteko harremanak lantzeko jarduerak, kulturartekotasunaren gaia aztertzea, artearen inguruko proiektuen bidez jatorri, kultura eta sexu guztietako pertsonak parte hartzen baitute.

- Arkitektura eta hirigintza, hirigunetik urrun dauden auzoetako gizartearen suspertzea landuz, horiek izan ohi baitira, batez ere, errealitate hori bizi izaten dutenak.

Edozein eremu edo leku geografikotan burutzen ari diren jardunbide egokiak ezagutu eta beraiekin harremana izatea iradokitzaile, beharrezko eta onuragarritzat jotzen denez, gure inguruan antzeko proiektuak suspertu ahal izatea posible egingo duen informazioa eskaintzeko helburuarekin sortzen da.

birmoldatu beraz, hauxe da:

- “Erabiltzen ez diren espazioetan edo espazio hutsetan artearekin lotutako jarduerak, tokiko biztanleria integratu eta partaide bihurtuz, garatzen dituzten nazioarteko ekimenak bilatu, aurkitu, arakatu eta hedatzen dituen ikerketa”.

- “Udal, erakunde, instituzio, talde, elkarte, pertsonentzako edo espazio hutsei erabileraren bat eman nahi dieten beste batzuentzako erabilgarria, interesgarria eta iradokitzailea izango den erabilera zabaleko informazioa (CC)”.

- “Erakunde eta instituzioekin partekatzeko dokumentua, inguru honetan antzeko ekimenak martxan jartzea eragingo duena”.

Dokumentu hau 2012ko otsailean hasitako **birmoldatu** proiektua
ixten duen elementua da. Bertan espazio hutsen errealitatea
lantzeko mundu mailan martxan dauden ekimen ezberdinak bildu
dira, bogan dauden ikuspuntu mota ezberdinak erakusteko balio
duelarik.

Ikertu diren ekimenak gehienbat espazio komertzial hutsetan eta
nolabaiteko balio historikoa duten berreskuratutako
eraikuntzetan garatzen dira.
Ekimenak instituzio publikoek edo elkarte pribatuek sustaturikoak
dira, karitatezkoak direlarik hauetako asko. Erabiltzaileei
dagokionez, era guztietako jendeari zuzentzen diren
proposamenak daude.

Hirietako espazio hutsen egungo kopuru itzelari dagokionez
internazionalki garatzen ari diren, dokumentu honek biltzen
dituen, proposamenetaz gain, aldizka **birmoldaturen** web
orrialdean proiektu inspiratzaile berriak gehitzen dira.

Bukatzeko, gonbidapena zabaltzen da interesgarritzat jotzen den
edozein ekimen **birmoldaturekin** eta bere erabiltzaileekin
partekatzeko, horretarako web orria, posta elektronikoa edota
twitter daudelarik.

Este documento es el elemento que cierra el proyecto
birmoldatu, iniciado en febrero de 2012. En él se muestra un
abanico de iniciativas internacionales en representación de los
distintos enfoques que se están dando a nivel internacional a la
realidad de los espacios vacíos en desuso.

Principalmente las iniciativas que se han estudiado se
desarrollan en propiedades comerciales vacías y en
recuperadas edificaciones con cierto valor histórico.
Las iniciativas vienen promovidos por instituciones públicas o
por asociaciones privadas, de carácter caritativo en muchos de
los casos. En cuanto al público al que están dirigidas, existen
propuestas para todo tipo de usuarios.

Adicionalmente a las propuestas recogidas en este documento,
que sirven para conocer qué se está haciendo
internacionalmente respecto a la enorme cantidad de espacios
vacíos de las ciudades, en la página web de **birmoldatu**
periódicamente se añaden nuevas iniciativas inspiradoras.

Finalmente, queda hecha la invitación a compartir con
birmoldatu y sus usuarios cualquier iniciativa que se estime
interesante, a través de la página web, correo electrónico o
twitter.



chashama



Lower
Manhattan
Cultural
Council



NO LONGER
EMPTY

Design 99



THE
DEPTFORD
PROJECT

121 - 123 Deptford High Street SE8 4NS



3Space



<http://3space.org>

Karitatezko erakunde berritzailea Ingalaterra eta Galesko erabiltzen ez diren merkataritza-jabetzen gaitasuna aldi baterako erabileraren bidez desblokeatzen duena.

3Space espazio hutsen jabeekin batera lan egiten da komunitatearentzat onuragarriak diren proiektuetan lan egiten duten erakundeei espazioak doan aldi baterako eskaintzeko. Horrela auzoari jabeakuntza eskaintzen zaio, eremuak onera ekartzen dira, tokiko garapenari mesede egiten dio eta gizarte-enpresetan sostengatzen da. Hori guztia **3Space** ondasunen jabeek eratu dutelako da posible, horiek etekina ateratzen baitute erakunde batek beren espazioak erabiltzen baldin baditu. Eduki dezakeen alderdi negatibo bakarra, negozioa ezartzeko espazio hori erosteko interesa duen norbait agertzea izango litzateke, une horretan espazioa erabiltzen ari den elkarteak utzi egin beharko bailuke. Hori espazioa erabiltzen hasten denetik astebetara edo urte batzuk barru gerta daiteke, kasuaren arabera.

Denda hutsa honetarako erabil daiteke:

- Kausa bat sustatzeko.
- Dohaintzak biltzeko.
- Ideien testak egiteko.
- Prestakuntzarako edo ikastaroak antolatzeko.
- Komunitate-proiektua ezartzeko.
- Ekitaldi edo erakusketak ospatzeko.

3Space prozesu honetako bitartekoa da. Antzeko erakundeen beharra defendatzen du, bere lanaren bidez, proiektuek espazio hutsak erabili ahal izatea bizkortzen baitu, komunitatearen mesederako.

Proiektu bat abian duen erakunde txikiarentzako nahiko lan handia da espazioen jabeekin negoziatzea, eta jabeentzako ere nekagarria da proiektu-arduradunarekin banaka negoziatzen ibiltzea. **3Space**, beraz, bi aldeen arteko bitartekaria da. Jabetza asko batera barne-hartzen dituen dokumentu-zorroak eskuratu ohi ditu.

3Space-ko lantaldearen buruak Andrew Cribb eta Henry Mason dira eta hirigintza, ekonomia, artea, komunikazioa eta literatura bezalako eremuetan prestakuntza duten gazteek osatzen dute. Gainera, *start-up* delakoa denez, proiektuan zehar bideratzen dituzten aholkulariak dauzkate. Fast Company eta The Guardian ekimenari beren orrialde batzuk eskaini dizkioten egunkarietako bi dira. Horrez gain, ekimena “Britainia Handiko erradikalena” bezala aukeratu dute NESTA eta The Observer egunkariak *Britain's New Radical*-en. Hots, Britainia Handiko komunitate eta pertsonen bizitza sormenez eta modu erradikalenean hobetzen ari den erakunde edo pertsonari ematen zaion aitortpena jaso du **3Space**-k.

Innovadora organización caritativa que desbloquea el potencial de las propiedades comerciales en desuso de Inglaterra y Gales a través de su uso temporal.

3Space trabaja conjuntamente con propietarios de espacios vacíos para ofrecer su uso temporal de forma gratuita a organizaciones que trabajan en proyectos que benefician a la comunidad. Así se empodera a la comunidad, se regeneran las zonas, se favorece el desarrollo local y se apoya a las empresas sociales. Todo esto es posible debido a que **3Space** está fundado por los dueños de las propiedades, los cuales obtienen beneficios de que una organización haga uso de sus espacios. El único posible aspecto negativo de ello es que, en caso de que aparezca algún interesado en adquirir el espacio para establecer un negocio, la organización que esté haciendo uso del espacio en ese momento, debe dejarlo libre. Esto puede ocurrir al de una semana de instalarse o al de varios años, dependiendo del caso.


Una tienda vacía puede servir para:

- Promover una causa.
- Recaudar donaciones.
- Testear una idea.
- Organizar talleres o formación.
- Establecer un proyecto comunitario.
- Celebrar actuaciones o exposiciones.

3Space se define como el intermediario de este proceso. Defiende la necesidad de organizaciones como la suya, ya que a través de su trabajo se agiliza el que los proyectos puedan hacer uso de espacios vacíos para el beneficio de la comunidad. Para una pequeña organización con un proyecto en marcha resulta bastante laborioso negociar con los propietarios de los espacios, de la misma manera que para los propietarios el tener que estar negociando uno a uno con cada responsable de proyecto, también resulta más pesado. **3Space** sirve pues de intermediario entre ambas partes. Habitualmente suele adquirir un portfolio de muchas propiedades a la vez.

El equipo de trabajo de **3Space**, liderado por Andrew Cribb y Henry Mason, lo forman un grupo de jóvenes formados en áreas como urbanismo, economía, arte, comunicación y literatura. Además, al tratarse de una *start-up* cuentan con una serie de consejeros que les guían a lo largo del proyecto. Fast Company y The Guardian son sólo dos de las múltiples publicaciones que han dedicado parte de sus páginas a esta iniciativa que recientemente ha sido elegida por NESTA y The Observer, como “la más radical de Gran Bretaña”, en el *Britain's New Radical*. Es decir, en **3Space** ha recaído el reconocimiento a la persona u organización que se considera está mejorando la vida de las personas y comunidades de Gran Bretaña de la forma más creativa y radical.

798 SPACE



<http://www.798space.com>

 [pages/798-Art-Zone/138151999547931](https://www.facebook.com/pages/798-Art-Zone/138151999547931)  [798_art_zone](https://twitter.com/798_art_zone)

**789SPACE Dashanzi arte-barrutiko (jatorriz estatuko fabri-
ken eremua, 798 barne. Bertan elementu elektronikoak sort-
zen ziren) espazio modernoa da, nabarmen hasten ari den
Beijingeko komunitate artistiko eta kulturalaren bihotzean.
Eremu horretako mugimendu artistikoaren ardatz nagusia
da, eta baita goi-mailako ekitaldi kultural, artistikoak eta
merkataritza-jarduerak eskaintzen dituen espaziorik
handiena ere.**

798 SPACE 50eko hamarkadaren hasierako Bauhaus eskola
alemaniarren estiloan diseinatu zen. Estilo garaikideko
berreraikuntza eta berdiseinuaren bidez, espazioak "Txina
berriaren" iragana, oraina eta etorkizuna batzen ditu, eta baita
kultura sobietarraren zentzu bakarra ere.

2002. urtetik, artistak eta erakunde kulturalak fabriketako
espazioak banatu, alokatu eta berreraikitzen hasi ziren,
pixkanaka arte-zentro, artisten estudio, enpresa, jatetxe eta
taberna bihurtuz.

Horrela, *Soho* erako nazioarteko izaera zuen eremua bihurtu
zen, mundu osoko lekuetatik arreta erakarritz.

798 SPACE-k interes historikoa zuen ingurua birmoldatu du arte
garaikidea, arkitektura eta kultura batuz.

Espazioan ez dira arte garaikideko erakusketa eta ekitaldi
nazionalak eta internazionalak bakarrik antolatzen, goi-mailako
jarduera kulturalak eta merkataritza-jarduerak ere egiten dira,
hala nola: *forum*-ak, multimedia erakusketak, obra
esperimentalak, dantza eta musika garaikideko ekitaldiak,
kontzertuak, diseinu eta altzarien erakusketak, gau kultural
sinestezinak, moda-desfileak, hitzaldiak, topaketak, etab.

**798 SPACE es un moderno espacio del distrito artístico de
Dashanzi (originariamente una zona de fábricas del estado,
incluyendo la 798 que producía elementos electrónicos), en
el corazón de la creciente comunidad artística y cultural de
Beijing. Se trata del eje central del movimiento artístico de
la zona y el mayor espacio que oferta eventos culturales,
artísticos y actividades comerciales de alto nivel.**

798 SPACE fue diseñado en estilo de la escuela alemana
Bauhaus a principios de los años 50. Gracias a la
reconstrucción y el rediseño de estilo contemporáneo, el espacio
combina pasado, presente y futuro de "la nueva China" y el
sentido único de la cultura soviética.

Desde el año 2002, artistas y organizaciones culturales comen-
zaron a dividir, alquilar y re-construir los espacios de las fábricas,
reconvirtiéndolos poco a poco en galerías, centros de arte,
estudios de artistas, empresas, restaurantes y bares.

Pasó así a ser un área tipo *Soho* de carácter internacional,
atrayendo atención desde puntos de todo el mundo.

798 SPACE ha reconvertido un entorno de interés histórico a
través de la unión del arte contemporáneo, la arquitectura y la
cultura.

El espacio no sólo organiza exposiciones y eventos de arte
contemporáneo nacionales e internacionales, sino que también
mira a actividades culturales y comerciales de alto nivel tales
como: *forums*, exposiciones multimedia, obras experimentales,
actuaciones de baile y música contemporáneas, conciertos,
exposiciones de diseño y mobiliario, increíbles noches culturales,
desfiles de moda, conferencias, encuentros, etc.

Artscape



<http://www.torontoartscape.org>

Artscape kultura eta artearen sektoreetako espazioen kudeaketan buru da, Toronton, Kanada.

Artscape Torontoko artisten komunitatearentzako espazioaren krisialdiari erantzuteko sortu zen, 80ko hamarkadatik aurrera eratutakoa. Garai hartan udal-ikuskatzaileak biltegi eta eraikin industrialetako legezkoak ez ziren artisten estudio guztiak ixten zebiltzan eta hirigunetik talde horren desagertzerengatik herritarrek zuten ardura gero eta handiagoa zen.

1991n jaio zen lehenengo proiektua, Spadina etorbideko 96. zenbakian, lan-estudio batzuk garatze-bidean zegoen Torontoko galerien eremuan.

Ondoren hauek etorriko ziren: *Artscape West Queen West*, artistak sortu eta bizi zitezkeen Torontoko legezko lehenengo eraikina, *Parkdale Arts & Cultural Centre*, tokiko ekonomia sustatu eta komunitatea indartzeko eraldatua izan zen polizia-etxea, *Artscape Gibraltar Point*, natur zientzien eskola zaharra, estudioak eta lo egiteko lekua zituen bakartzeko-bila zebiltzan artistentzako espazioa, *Artscape Distillery Studios*, destilategi izandakoa eta 60 lan-estudiotan birmoldatua, kanpo-merkatu handiarekin, *Artscape Triangle Lofts*, Torontoko *Queen West Triangle* auzoko artistei ostatu eman eta lana eskaintzeko sortutako apartamentu-blokea, eta azkena *Artscape YOUNGplace*, artea, komunitatea eta gizarte-erakundeentzako espazioak eskaintzeko birmoldatua izan den eskola.

Hasi zenetik, gaur arte, **Artscape**-k bilakaera izan du, pobrezia ekiditen arreta jartzen zuen hornitzailea izatetik, aberastasuna sortzea sustatzen duen hiriko garapen-eragilea bihurtu da.

Artscape buru dela gauzatutako proiektuak eragin kulturala, ekonomikoa, soziala eta ingurumen-eragina sortzeko diseinatzeko dira.

Lana gehienbat Toronton garatzen badute ere, **Artscape**-k Ontarioko, Kanadako eta mundu osoko komunitateekin partekatzen du bere esperientzia.

Bere ibilbidean zehar, **Artscape**-k nazioarteko hainbat topaketetan parte hartu du, besteak beste, *Creative Places + Spaces* hitzaldietan (2003ko urrian). Bertan, hildako Jane Jacobs-ek eta Richard Floridak parte hartu zuten, beste 50 hizlarirekin batera. Ekitaldian Kanada, AEB eta Erresuma Batuko proiektu artistiko eta kulturalen 450 arduradun baino gehiago batu ziren, eta hirietan eta ekonomian sormenak duen garrantziaz hitz egin zuten.

2003an, hedapen-lana hasi zuen, nola lan egiten zuten erakutsi eta partekatzeko asmoz, horrela, mundu osoan zehar antzeko ereduak errepikatu ahal izateko.

Testuinguru honetan sortu zen **Artscape DIY**. Espazio horrek *case studies*, tresna (txantiloioak, adibidez) eta baliabideen (filmak eta gidak, adibidez) bidez, informatu eta inspiratzeko balio du, eta horrela, antzeko sormen-proiektuak abian jartzen saiatzeko.

Artscape DIY-k komunitatea birgaitu eta eraldatzen lagunduko duen eta horri erantzungo dion proiektu kultural edo sortze-proiektua abian jartzeak dakartzan arriskuak eta duen konplexutasunari buruzko informazio-artikuluak ere eskaintzen ditu.

2006. urtean **Artscape Foundation** sortu zuten **Artscape**-ren lana finantzatzeko helburuarekin.

Artscape es líder en la gestión de espacios para los sectores del arte y la cultura en Toronto, Canada.

Artscape se fundó en respuesta a la crisis de espacios para la comunidad de artistas de Toronto, generada a partir de los años 80. En aquella época los inspectores municipales estaban cerrando los llamados estudios ilegales de artistas en almacenes y edificios industriales y crecía la preocupación ciudadana sobre la desaparición de este colectivo del centro de la ciudad.

En 1991 nació el primer proyecto en el número 96 de la avenida Spadina, se trataba de una serie de estudios de trabajo en la floreciente zona de galerías de Toronto.

Después ya llegarían: *Artscape West Queen West*, el primer edificio legal de Toronto en el que los artistas pueden crear y vivir, *Parkdale Arts & Cultural Centre*, comisaría de policía que fue transformada para revitalizar la economía local y fortalecer la comunidad, *Artscape Gibraltar Point*, antigua escuela de ciencias naturales con espacios para el retiro de artistas con estudios y alojamiento, *Artscape Distillery Studios*, antigua destilería reconvertida en 60 estudios de trabajo y con un gran mercado exterior, *Artscape Triangle Lofts*, bloque de apartamentos creado para ofrecer espacios de trabajo y alojamiento a artistas del barrio *Queen West Triangle* de Toronto y el último de ellos, *Artscape YOUNGplace*, una escuela que ha sido reconvertida en espacios para el arte, la comunidad y organizaciones sociales.

Desde su inicio hasta hoy, **Artscape** ha evolucionado de ser un proveedor enfocado a evitar la pobreza, a ser un agente de desarrollo urbano que promueve la generación de riqueza.

Los proyectos liderados por **Artscape** son diseñados para generar impacto cultural, económico, social y medioambiental.

Aunque Toronto sea el principal foco del trabajo que desarrollan, **Artscape** también comparte su experiencia con comunidades de Ontario, Canada y el resto del mundo.

A lo largo de su trayectoria **Artscape** ha participado en numerosos encuentros internacionales como las conferencias *Creative Places + Spaces* (en octubre de 2003) en las que contaron con la participación de: la ya fallecida Jane Jacobs, Richard Florida y más de 50 ponentes más. El evento reunió a más de 450 responsables de proyectos artísticos y culturales de Canada, USA y Reino Unido, y en él se habló de la importancia de la creatividad en las ciudades y en la economía.

En 2003 comenzó la labor de difusión de **Artscape**, mediante la cual se pretende mostrar y compartir cómo trabajan, y así poder replicar modelos similares en todo el mundo.

En este contexto se creó **Artscape DIY**, espacio que a través de *case studies*, herramientas (como plantillas) y recursos (como películas y guías) sirve para informarse e inspirarse y tratar así de poner proyectos creativos similares en marcha. **Artscape DIY** también ofrece artículos informativos sobre lo complejo que es y los riesgos que conlleva emprender un proyecto cultural y creativo que responda y contribuya a la rehabilitación y transformación de una comunidad.

En el año 2006 crearon **Artscape Foundation**, con el objetivo de financiar la labor de **Artscape**.

chashama



<http://www.chashama.org>

 [pages/chashama/60016254080](https://www.facebook.com/pages/chashama/60016254080)  [chashama](https://twitter.com/chashama)  [chashamavideos](https://www.youtube.com/channel/UCchashamavideos)  [photos/chashama](https://www.instagram.com/photos/chashama)

Iran-en jaio zen Reza Abdoh artista berritzaileak inspiraturik, 1995. urtean Anita Durst-ek New York-en sorturiko chashama-k, erabili gabe dauden espazioak eraldatu eta artistei doan (edo prezio oso baxuan) eskaintzen dizkie 5 modalitatetan: estudioa, egonaldiak (*chaNorth* eta *Theather*), galeria, erakusleihoak eta gazteria.

Proiektuaren sortzailea den Durst-ek, *West 42nd Street*-eko 135ean produkzio batean lanean ari zela, larri zebiltzan artistek espazio hau gauean erabiltzeko eskaera egin ziotenean izan zuen **chashama** sortzeko ideia. Garai hartan New York-ek zuen espazio apropos eza zen bertan kultura giro anitza, dinamikoa eta probokatzaila ez sortzeko arrazoia. Egoerari erantzuna emateko asmoarekin, artistak eta espazio hutsak konektatuko zituen modu bat bilatzeari ekin zion Anitak, horrela jabego pribatu eta publikoarekin harremanetan jarri zen eta **chashama** sortu zuen.

chashama-ren helburua hutsik dauden espazioak birmoldatuz New York-eko sormena laguntzea da. Doan, edo prezio oso baxuan, espazio ezberdinak artisten tailer edota *erakusketa-areto* bihurtuz. Horrela inguruko komunitatea kultura, sorkuntza eta merkataritza indartuz eta gizartearen kohesioa lagunduz. Hutsik dauden eraikuntzekin lan eginez, auzo eta auzotarretan inbertitu, artistak eta beraien lana sustatu eta sorkuntza eta filosofia ezberdinak defendatzen dira. **chashama**-ren lanaren bidez artistak eta beraien lana auzo ezberdinetara iristen dira, mugimendu asko duten eremuetatik baliabide urritzeko eta ia kultura adierazpenik ez duten lekuetara. Aldi berean, **chashama**-rekin lan eginez artistak udal, hiri eta estatu erakundeekin erlazionatu daitezke.

chashama-k erabili gabe dauden hiriko espazioen atea irekitzen ditu, hiriko ehundaka artisten esku milaka metro karratu jarritz. 1995 urtetik hona, bere 5 lan arloen bitartez, **chashama**-k 50 espazio baino gehiago eraldatu ditu hirian zehar, 350 gazte-
ren sormena bermatu du, 10.000 artistei lan-espazio merkeak eskaini dizkie, 720 erakusleho proiektu aurrera eramanez, 1.080 galeria ekitaldi antolatuz, 150 egonaldi programa eta 500 estudio bultzatuz eta 2.500 ekitaldi publiko baino gehiago ospatzea posible egin du, guztira 500.000 ikusle izatera iritsiz.

Etengabe hazten den New York-eko artista komunitatearen lana eta ideiak ezagutzearen alde lanean jarraitu ahal izateko, beraiekin kolaboratzea badago: proiektua ekonomikoki lagunduz edota espazio huts bat izatekotan hau beraiek kudeatzea baimenduz.

Chashama fue creada por Anita Durst en New York en el año 1995, inspirada por el innovador artista iraní Reza Abdoh. Chashama transformó los espacios en desuso y los ofreció a los artistas, de forma gratuita o a un precio muy bajo, en 5 modalidades: estudio, estancias (*chaNorth* y *Theather*), galería, escaparates y juventud.

Durst, la creadora del proyecto, tuvo la idea de crear **chashama** cuando trabajaba en una producción en el número 135 de *West 42nd Street* y algunos artistas con dificultades le pidieron permiso para poder usar ese espacio a la noche. La falta de espacios adecuados en Nueva York, dificultó la creación de un ambiente cultural diverso, dinámico y provocador. Para dar respuesta a esta situación, la artista se dedicó a buscar un modo para poder conectar los espacios vacíos, poniendo en contacto la propiedad privada y la pública, creando así **chashama**.


El objetivo de **chashama** es apoyar la creatividad de Nueva York reconvirtiendo los espacios vacíos. Convirtiéndolos, de forma gratuita o con precios muy bajos, en talleres de artistas y salas de exposiciones, ayudando de esta manera, a la comunidad, la cultura, la creatividad y el comercio del entorno. Trabajando con los edificios vacíos, se invierte en los barrios y sus vecinos, se impulsa a los artistas y sus trabajos y se defienden la creatividad y las diferentes filosofías.

A través del trabajo de **chashama**, los artistas y sus trabajos llegan a diferentes barrios, desde los ámbitos de mayor movimiento, hasta los sitios de escasos recursos y con pocas expresiones culturales. Al mismo tiempo, trabajando con **chashama**, los artistas pueden relacionarse con instituciones municipales, urbanas y estatales.

Chashama abre las puertas de los espacios en desuso de las ciudades, poniendo en manos de centenares de artistas miles de metros cuadrados de la ciudad. Desde el año 1995 hasta hoy, a través de sus 5 áreas, **chashama** ha transformado más de 50 espacios en la ciudad, ha confiado en la creatividad de 350 jóvenes, les ha ofrecido espacios de trabajo baratos a 10.000 artistas, ha llevado adelante 720 proyectos de *escaparates* y ha apoyado 500 estudios, y ha hecho posible celebrar más de 2.500 actos públicos que en total han llegado a tener más de 500.000 espectadores.

Para poder seguir trabajando a favor de dar a conocer el trabajo y las ideas de la comunidad de artistas de New York que crece sin cesar, se puede colaborar con ellos, ya sea ayudando al proyecto económicamente o si se tiene un espacio vacío permitiendo que lo gestionen.

Le CENTQUATRE



<http://www.104.fr>

Le CENTQUATRE esperientziak sortzeko eta berrikuntzarako zentro kulturala da, mundu garaikidearen bibrazioetara irekia, lehenago hiletetako udal-zerbitzuak eskaintzen zituzten eraikuntzan dago. **Le CENTQUATRE** artistak biltzeko leku artistikoa da, bertaratzen diren pertsonentzako antolatutako tailer, erakusketa eta ikuskizunen bidez beren idealak sustatzen dituena.

Hiletetako udal-zerbitzuak eskaintzen zituzten garaia-
rendoren, eraikin historiko honek ateak ireki zituen berriz ere
2008. urtean, kultura eta arteentzako leku bikaina bihurtu zen
birgaitze sakona jasan ondoren.

Le CENTQUATRE-k gaur egungo praktika artistiko eta kulturalak
sustatzen ditu eta baita hainbat lekutan burututako (plaza
publikoetan, ikerketa-estudioetan, eta antzezpen-espazioetan)
bat batekoagoak diren adierazpenak sustatu eta barne hartzen
ditu. **Le CENTQUATRE**-k ildo editorial zabala jarraitzen du
arte-diziplina guztienganako interesa erakutsiz: antzerkia,
dantza, musika, zinema, bideoa, sukaldaritzako artea, arte
digitalak eta hiri-artea.

Gainera, nabarmendu beharra dago, **Le CENTQUATRE** Flandre
auzoko (19. barrutia) dinamizatzailea ere badela, bertan kokatuta
baitago, Pariseko hirigunea eta kanpoaldearen arteko muga
sinbolikoa eraikiz.
Gainera espazio artistikoak zerbitzu publiko gisa eskaintzen ditu
(merke) hirigunetik eta azpiegitura ikusgarrietatik urrun dagoen
eremu honetako biztanleentzako.

Le CENTQUATRE-k hainbat erabilera dituzten espazioak ere
baditu:

- *La Maison des Petits*: haur, ume eta gazteentzako topalekua
da, beren kabuz edo familiarekin batera sortu dezaten.

- *Le CINQ*: 18 eta 19 auzoei eskaintzen zaien espazioa da.
Bertan, jarduera artistikoak garatzen dira, amateur bezala.

- *L'incubateur*: enpresa berritzaileen sorrera eta garapena
bultzatzen duen egitura da.

- *Les Grandes Tables du 104*: bere helburua, sukaldaritzako
lurralde berriak aurkitzea da, berrikuntzari zabalik daudenak
produktuekiko sentikorrek eta kostuetan arreta jartzen dutenak.

- *L'arnaqueur*: liburu zahar eta literaturan, argazkigintzan, arte
ederretan, ikuskizunetan, zinematan, eta abarretan
espezializatutako bildumen denda.

- *Le Café caché*: auzoko kafea eta artisten topalekuaren artekoa.

- *Le camion à pizzas*: eraikinaren kanpoaldean dago, pizzak,
gofreak ardo beroa eta beste gauza batzuk eskaintzen ditu.

- *Le Merle moqueur*: 250 metro koadrotan 20.000 erreferentzia
baino gehiago dituen liburutegia.

- *L'appartement d'Emmaüs*: Emmaüs Défi-k kudeatutako
bigarren eskuko denda.

- Ikuskizun-aretoak.

- Sarrera eta erdiko gunekak.

- Tailerrak.

Le CENTQUATRE es un gran centro cultural para la crea-
ción de experiencias e innovación, permeable a vibraciones
del mundo contemporáneo, ubicado en un edificio que
anteriormente estaba destinado al servicio municipal de
pompas fúnebres de París.

Le CENTQUATRE es un lugar artístico para el encuentro de
artistas y público que fomenta sus ideales a través de los
talleres, exposiciones y espectáculos que organiza para su
amplio público.

Tras un periodo pasado durante el cual albergó el servicio
municipal de pompas fúnebres (SMPF) de París, este histórico
edificio reabrió sus puertas en el año 2008, tras una profunda
rehabilitación que lo transformó en un gran lugar para la cultura
y las artes.

Le CENTQUATRE acoge y fomenta prácticas artísticas y cultu-
rales de estos días, así como manifestaciones más espontáneas
en diversos espacios como plazas públicas, estudios de investi-
gación y espacios de representación. Iniciador de proyectos, **Le
CENTQUATRE** sigue una amplia línea editorial, interesándose
por todo tipo de disciplinas artísticas: teatro, danza, música,
cine, vídeo, artes culinarias, digitales y urbanas.

Le CENTQUATRE también es un dinamizador del barrio de
Flandre (distrito 19) donde se ubica, haciendo frontera simbólica
entre la periferia y el centro de la ciudad de París. Además
ofrece espacios artísticos como servicio público (a precio eco-
nómico) para los distintos habitantes de esta zona alejada del
centro y sus visibles infraestructuras.

Le CENTQUATRE cuenta con distintos espacios artísticos para
múltiples usos:

- *La Maison des Petits*: espacio de encuentro de bebés, niños y
jóvenes en el que crear tanto independientemente como acom-
pañados de su familia.

- *Le CINQ*: espacio que se ofrece a las asociaciones de los
barrios 18 y 19 que desarrollan actividades artísticas de manera
amateur.

- *L'incubateur*: estructura que apoya la creación y desarrollo de
empresas innovadoras.

- *Les Grandes Tables du 104*: su objetivo es descubrir nuevos
territorios culinarios, abiertos a la innovación, sensibles a los
productos y atentos a los costes.

- *L'arnaqueur*: tienda con libros antiguos y colecciones especia-
lizadas en cine, espectáculos, bellas artes, fotografía, literatura,
etc.

- *Le Café caché*: un cruce entre el café de barrio y el lugar de
encuentro de artistas.

- *Le camion à pizzas*: situado en el exterior del edificio ofrece
pizzas, gofres, vino caliente y otros.

- *Le Merle moqueur*: biblioteca con más de 20.000 referencias
en más de 250 metros cuadrados.

- *L'appartement d'Emmaüs*: tienda de segunda mano gestionada
por Emmaüs Défi.

- Salas de espectáculo.

- Hall y espacios centrales.

- Talleres.

Lower Manhattan Cultural Council (LMCC)



<http://www.lmcc.net>

 LMCCNYC  lmcc  lmcc  user1053963  367264608@N02

Lower Manhattan Cultural Council (LMCC) trabaja divulgando el arte a través de la ciudad de New York. Comisiona las instalaciones de arte, produce y presenta *performances*, entendiendo el arte como componente para crear y mantener una comunidad viva. Desarrolla su trabajo reconvirtiendo los espacios y oficinas de distritos financieros que están en desuso.

Flory Barnett, interesada por el arte, fue la creadora del proyecto, con el objetivo de humanizar el distrito financiero. Cuando en 1972 se terminó el *World Trade Center 1*, inició el llamado consejo de arte, proponiendo a los trabajadores del distrito que saliesen de la oficina a la hora de comer. **LMCC** y el distrito *World Trade Center*, fueron creciendo a la vez, extendiendo al entorno el arte y la cultura. Desde los conciertos de la hora del almuerzo y las *performances* de la plaza, a las entradas de los bancos (el proyecto conocido como *Art Lobby*) y a las exposiciones exteriores de escultura, la zona de *Lower Manhattan* se convirtió en recinto de arte. En los años siguientes, puso en marcha becas de creación. En 1984 *Manhattan Community Arts Fund*, subvención de 5.000 dólares dirigido a los artistas y asociaciones sin ánimo de lucro de la ciudad, en 1998 *Fund for Creative Communities*, ayuda que tenía como objetivo el apoyo de la comunidad urbana a los proyectos relacionados con el arte y en 2003 *Creative Curricula*, programa de arte dirigido a los centros escolares.

En el año 1990, la asociación, situó sus oficinas en el *World Trade Center*, y además, puso en marcha *World Views*, es decir, en los últimos pisos de la *torre Norte* establecieron estudios asequibles para artistas. En la misma época, con el proyecto *Evening Stars* empezó a organizar actos de danza gratuitos en la plaza de *World Trade Center* y organizó varias exposiciones dentro del edificio, para dar a conocer el trabajo de diferentes artistas.

Los sucesos de la historia contemporánea del 11 de septiembre del 2001 ocurridos en New York transformaron completamente **LMCC**. La sede del proyecto, los estudios de creación, las salas de exposiciones y la historia de 30 años quedaron destruidos en pocos minutos. Especialmente, cabe destacar al artista residente Michael Richards, que resultó muerto allí mismo. Al hilo de estos acontecimientos, los amigos y familiares de Michael, algunos años después, crearon la beca *The Michael Richards Fund* dirigido a artistas caribeños.

Durante años, estuvieron en diferentes sitios, sin oficinas estables y pudieron seguir adelante gracias a la generosidad de diversos agentes, y han ido poniendo en marcha programas que apoyan la creación de artistas multidisciplinares. A día de hoy, su propuesta se compone de 6 programas:

- *Workspace*: a través de este programa de 15 años de antigüedad, se les da la oportunidad a los nuevos artistas y escritores de profundizar en su proceso creativo y desarrollo profesional, durante 9 meses. Criticando, al mismo tiempo, la dificultad de conseguir espacios adecuados en Manhattan, ya que los espacios que se les ofrecen son espacios reconvertidos que no han sido utilizados. Creando así un cambio en el concepto de trabajar en el llamado *Lower Manhattan*.

- *Swing Space*: Mediante este programa se les ofrece a los artistas o a los grupos de artistas que elaboran *performances* espacios donde presentar sus creaciones. Desde el año 2005, más de 1.000 artistas han trabajado en 20 ubicaciones diferentes de *Lower Manhattan* y *Governors Island*.

- *Process Space*: iniciativas para artistas principiantes o reputados para impulsar la investigación, el desarrollo, la experimentación y la creación que tenga su origen en New York, ofrece estancias intensivas en el centro de arte de **LMCC** situado en el Edificio 110 de *Governors Island*.

- *SPARC*: a través de este programa los artistas elegidos trabajan junto a gente mayor en uno de los cinco centros para personas mayores de la ciudad. Con estos encuentros se busca tener efectos positivos en el bienestar de los mayores.

- *International Fellowships*: son becas internacionales que se ofrecen gracias al acuerdo entre *Asian Cultural Council*, *CEC Artslink* y el ayuntamiento de París.

Además de lo anterior, desde febrero del 2011 **Lower Manhattan Cultural Council** se encarga de organizar el prestigioso festival veraniego *The River To River Festival* que se celebra cada año.

**Lower Manhattan Cultural Council-ek (LMCC) New York hirian barrena artea zabaltzen egiten du lan. Arte instalazioak komisionatzen ditu, *performance*-ak pro-
duzitu eta aurkezten ditu, artea komunitate bizi bat sortzeko eta mantentzeko osagai gisa ulertuz. Bere lana erabili gabeko hiriko barruti finantzarioko bulego eta espazioak birmoldatuz garatzen du.**

Artearekiko interesa zuen Flory Barnett-ek barruti finantzaria gizatiartzeko asmoarekin sortu zuen proiektua. 1972an, *World Trade Center 1* bukatzean, eremuko langileei bazkalorduan bulegoetatik ateratzeko arrazoi bat eman zien ekintza kultural eta artistikoen bidez. Urteak aurrera joan ahala, **LMCC World Trade Center** barrutiarekin batera hasten joan zen, artea eta kultura ingurura zabalduz.

Bazkalorduetako kontzertu eta arratsaldeetako plazako *performance*-etatik, bankuetetako atarietako erakusleiho (*Art Lobby* delako proiektua) eta kanpo eskultura erakusketetara, **LMCC**-ren lanak *Lower Manhattan* eremua arte esparru bilakatu zuen. Ondoko urteetan sorkuntza bekak martxan jarri zituen. 1984an *Manhattan Community Arts Fund*, hiriko artista eta irabazi asmorik gabeko elkarte kulturaleri zuzenduriko 5.000 dolar-eko dirulaguntza, 1998an *Fund for Creative Communities*, hiriko komunitateak artearen inguruko proiektuak bultzatzea helburua zuen laguntza eta 2003an *Creative Curricula*, eskolei zuzenduriko arte programa.

